



HEZKIDETZAREN ALDE BUSTI! ONLINE IKASTAROA IKASLEENTZAT

**EUSKARAZ ETA DOHAINIK
ERREKONozimendua:
3 KREDITU (75 ORDU)
100 PLAZA**

www.ehu.eus

KURTSOA:

2026ko urriaren 13tik abenduaren 18ra

IZEN-EMATEA:

**2026ko irailaren 14tik urriaren 5era, biak
barne**



HEZKIDETZAREN ALDE BUSTI!

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren
14tik urriaren 5era, biak barne

IKASTAROA:
Urriaren 13tik abenduaren 18ra

ONLINE IKASTAROA
IKASLEENTZAT 100 PLAZA

EUSKARAZ

DOHAINIK

ARDURADUNA:

MILA AMURRIO VELEZ

EBALUATZAILE TALDEA:

MILA AMURRIO VELEZ

MARIA GEMA LASARTE LEONET

AINTZANE ETXEBARRIA LEJARRETA

EIDER HERMOSO LARZABAL

PROGRAMA

Hezkidetzaren Alde
busti!

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. IKASTAROAREN XEDEA ETA HELBURUAK	4
2.1. XEDEA	4
2.2. HELBURUAK	4
3. EGITURA ETA EDUKIAK	5
3.1. EGITURA	5
3.2. GAI-MULTZO NAGUSIAK	5
4. IKASKUNTZA EMAITZAK	6
5. DENBORA BANAKETA	7
6. METODOLOGIA	7
7. NORI ZUZENDUTA	7
8. EBALUAZIOA	8
8.1. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	8
8.2. KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK	8
8.3. EBALUAZIORAKO TRESNAK	9

Antolatzailea: EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.

Egileak: Beatriz Ugarte Maiztegi, Maria Luisa Otaduy Bengoa eta M^a Jesús (Make) Irigoyen Perurena. (EHUko [Hezkidetzan Esku Hartzen](#) online ikastaro osagarriaren diseinu eta kudeaketa pedagogikoaren arduradunak).

Lan hau Creative Commons
[Aitortu-Ez komertziala-PartekatuBerdin 4.0](#)
[Nazioartekoa](#) baimen baten menpe dago.



1. SARRERA

Hezkuntza-eragileen esku hartzeek berebiziko garrantzia dute gizon eta emakumeen berdintasunezko jendartea eraikitzen laguntzeko. Izan ere, hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza sistematizatu ezean, eskolaldian ikasleek haien garapen osorako muga diren estereotipo sexistetan murgilduta jarraituko dute.

Itxuran aukera-berdintasunean eta inolako bazterketarik gabe hezten duen hezkuntza-sisteman, hezkidetzaren ekarpenak funtsezkoak dira neska ikasleek zein mutil-ikasleek bizi-programa eredu ezberdinak ez barneratzeko eta ikasle bakoitzak askatasunez herritartasun aktiborako, inklusio sozialerako eta enplegurako funtsezko konpetentziak garatu ahal izateko.

Hezkidetzak dominazio-menekotasun eskeman oinarrituriko indarkeriazko harreman patriarkalak desikasten laguntzen du, baita tratuan oinarriturikoak eraikitzen ere, gizon zein emakumeengan elkar-ardura, zaintza lanak eta alderdi afektibo-emozionalen garapena sustatuz.

Genero-ikuspegitik hezkidetzak eremu hezitzaileetan suertatzen den guztia aztertzen du. Sexismoak zipriztintzen duen guztia detektatzeaz gain, eraldatzearen aldeko proposamen zehatzak egiten ditu: nola erabili hezkuntza inklusiboa; nola bistaratu emakumeen ekarpenak ezagutza-arloetan, testuliburuetan eta ikasgeletako materialetan; norberaren sexua, sinesmenak, etnia, maila sozioekonomikoa, identitate sexual, ezaugarri fisiko, psikologikoa eta halakoak direnak direla nola aurkeztu izateko eta bizitzeko dauden hamaika modu osasungarri eta positibo anitz; orientazio akademiko ez sexistaren alde jarduteko gakoak eta abar.

Bide horretan aurrerapausoak ematen hasteko eta berdintasunerako hezkuntza orokortu ahal izateko, lehendabiziko lana kontzientzia hartzea da, hots, hezkuntza-sistemak erreproduzitzen dituen estereotipo sexistaz jabetu eta hausnarketa sakona egitea. Ondoren, neska-ikasle zein mutilek haien konpetentzien (esparru pertsonalean, akademiko-profesionalean, eremu

publiko eta pribatu-domestikoa eta abar) erabateko garapena bermatzeko proposamenak martxan jartzea.

Gero eta hezitzaile gehiago (irakasle, senide zein bestelako hezkuntza eragile) ari da emakume zein gizonentzat jendarte bidezkoagoaren alde indarrak biltzen. Eta hori da, hain zuzen ere, martxan jarriko den EHUko Hezkidetzaren Alde Busti! ikastaro honen helburua.

2. IKASTAROAREN XEDEA ETA HELBURUAK

2.1. XEDEA

UPV/EHUko graduiko ikasleei hezkidetzan oinarritzko formazioa eskaintzea. Ikasleengan Hezkidetzan sakontzeko grina sortzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromiso aktiboa areagotzeko hasierako pausoak eta estrategiak eskaintzea.

2.2. HELBURUAK

- Eguneroko bizitzako eta eskola zein eremu-hezitzaileko esparru ezberdinetan sexismoa errekonozitzen, esplizitu egiten eta ondorioak identifikatzen jakin.
- Hezkidetzaren hezkuntzan, bakarka zein taldean, norberak bere interesetatik abiatuta eta bere inguru hurbiletik sustatzeko ezagutza eta baliabide teoriko-praktikoz jantzi.
- Eskolan eta eremu hezitzaileetan martxan jartzeko hezkidetzan oinarritutako materialak identifikatu edo sortzeko gai izan.
- Ikasleak tratatu onean sozializatzeko hezkidetzara bideratutako ekintzak planifikatu, baita ikasgelan eta inguru hezitzaileetan pertsona barruko zein kanpoko harreman ez sexistetan oinarrituriko elkarbizitza eraikitzeko gai izan.

3. EGITURA ETA EDUKIAK

3.1. EGITURA

SARRERA "Bidaia hasten"	
1	Abiatzen!
HEZKIDETZA "Betaurrekoak aukeratzen"	
2	Betaurrekoen garrantzia.
3	Ikusezinak protagonista bihurtzen.
EMAKUMEEN ERREALITATEA. "Begirada aldatzen"	
4	Indarkeriei aurre egiten.
5	Esaten diren eta ez direnen indarra.
ELKARBIZITZA "Jokaera eraikitzen"	
6	Anitzak garelako aniztasun anitzen alde.
7	Zaindu maite dituzunak (eta ez dituzunak)
AGURRA "Aurrerapausoak finkatzen"	
8	Hau hasiera baino ez da izan.

3.2. GAI-MULTZO NAGUSIAK

E Sarrera. "Bidaia hasten". Online izaera, hezkidetzaren eta konpromiso aktiboaren beharra.

E Hezkidetza. "Betaurrekoak aukeratzen". Sexu-genero sistema, emakumeen aurkako indarkeria, feminismoen ekarpenak eta hezkidetzaren lekua eremu hezitzaileetan. Inguruan emakumeak bistaratzeko gakoak.

E Emakumeen errealitatea. "Begirada aldatzen". Indarkeria matxistak identifikatzen, LGTBIQ+fobiak, lodifobia... eta aurre egiteko estrategiak. Hizkuntza inklusiboa.

E Norbera eta harremanak. "Jokaera eraikitzen". Aniztasun sexuala, heziketa afektibo-sexuala, zaintza, elkar ardura eta tratu onak.

E Agurra. "Aurrerapausoak finkatzen". Konpromiso aktiboa eta jarraitua mantentzeko plangintza.

4. IKASKUNTZA EMAITZAK

- Eguneroko bizitzarako eta eskolako zein eremu-hezitzaileko alderdi ezberdinetan sexismoa, identifikatzea eta esku-hartzeko gai izatea.
- Genero-indarkeriaren (curriculum-, material-, espazio-, errepresentazio-, hizkuntza- eta interakzioetan ageriko eta ezkutuko indarkeria) identifikazio eta prebentziorako Hezkidetzaren baliabide teorikopraktikoak aplikatzea.
- Hizkuntza hezkidetzaille eta inklusiboaren erabileraren garrantziaz ohartzea eta praktikan jartzea.
- Eskolarako zein bestelako eremu-hezitzaileko hezkidetzan oinarritutako materialak identifikatu, bilatu eta/edo sortzeko erremintak erabiltzea.
- Curriculum ezkutua identifikatzeko, era eraikitzailean kritikatzeko eta ordezkatu edo zuzentzeko gai izatea.
- Tratu onetan (begirunean, zaintzan, lankidetzan eta erantzukidetasunean) sozializaziorako hobekuntza-jarduera eta ekintza hezkidetzailleak ezagutzea eta erabiltzea.
- Heteronormatibitatea gaindituz, pertsonen aniztasun sexuala eta afektibo-sexuala modu ez hierarkikoan aurkezteko, aniztasun ororen aldeko diskurtsoa normalizatzeko eta pertsona guztientzako espazio seguruak sortzeko estrategiak aplikatzea.
- Ikastaroan egindako bidea jorratzen jarraitzeko, hurbileko inguruan esku-hartze hezkidetzaillearen planifikazioa egitea.

5. DENBORA BANAKETA

Guztira 3 kredituko ikastaroa da (75 ordu).

8 astez gauzatuko da, hau da, bataz beste, astero 9 ordu eta 20 minutuko lan zama aurreikusten da (astero ikastaroan gai berria jaso, landu eta aurkeztu).

6. METODOLOGIA

Ikastaro honek esanguratsua eta partaide bakoitzaren errealitatean eraginkorra izan nahi du hasiera hasieratik, horretarako, teoriatik praktikara eta jarduera praktikoetatik teoriara norabideak sustatuko dituelarik.

Ikastaroaren edukiak progresiboki garatuko dira aste beterako lan plangintzen bitartez.

Hezkidetza edozein hezkuntza-eremu, ekintza, egoera eta gunean kontuan hartzekoa denez, ondokoak proposatzen zaizkio partaide bakoitzari, bere benetako beharrei erantzun diezaien:

- Alde batetik, ikastaroan zehar ibilbide propioa egitea, bere benetako beharretan oinarritutakoa. Horretarako astero izango dira bere inguru errealari begiratuko dioten jarduerak.
- Beste aldetik, ikastaroan zehar gainerako ikaskideekin foro birtualean parte hartzea, berdinen arteko ikaskuntza eta elkarren arteko lana sustatzeko.

Eskaintzen dituen jarduerak praktikoak eta landutako edukietan oinarritutakoak dira. Eskaintzen diren jarduerak hezitzaile baten eguneroko lanarekin lotura zuzena izateko diseinatuta daude.

7. NORI ZUZENDUTA

EHUko gradu, master eta doktoretza programetako ikasleentzat.

8. EBALUAZIOA

Ebaluazioaren oinarri dira informazio-batuketa, hausnarketa, kritika eta konpromisoa, kontuan izanik dimentsio kognitiboa zein emozionala.

Ebaluatzen dira ikasle bakoitzaren aurrerapenak eta baita ere, ondorengo edizioen hobekuntzari begira, ikastaroa bera. Ebaluazioak fase esanguratsu ezberdinak ditu:

- Ikastaroaren hasieran partaide bakoitzak bere abiapuntua ebaluatzen du.
- Ikastaroan zehar ikasleek egindako eta partekatutako lanak irakasleak baloratuak izango dira.
- Ikastaroaren amaieran partaide bakoitzak egindako aurrerapenak, sortutako zailtasunak eta hobetzeko proposamenak aztertu eta baloratuko ditu.

8.1. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Ikaskideekin lankidetzatza.
- Irakasleek emandako jarraibideak eta jarritako epeak betetzea.
- Inguru hurbilean hausnarketak eta praktikak martxan jartzea.
- Ekarpenen kalitatea
- Edukien menperatze eta garapen maila.
- Sormena.
- Diskurtsoaren antolakuntza.
- Baliabideen erabilera.

8.2. KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Sarrera: %10
- Hezkidetzatza. "Betaurrekoak aukeratzen": %20
- Emakumeen errealitatea. "Begirada aldatzen": %20
- Norbera eta harremanak. "Jokaera eraikitzen": %20
- Agurra: "Aurrerapausoak finkatzen": %30

Gainditzeko irizpideak:

1. Lan praktikoa aurkeztea derrigorrezkoa da (8. asteko ataza).
2. Ikastaroaren %60a lortzea.

8.3. EBALUAZIORAKO TRESNAK

Astero kalifikazioa izango dutenak:

E Foroa: %30

E Ataza: %40

E Galdetegia (edo inkesta) %30

Kalifikatzeko tresnak:

E Foroa: errubrika

E Ataza: errubrika

E Galdetegia: zuzenketa automatikoa (3 saiakera eta emaitzarik hoberena)